

2020



2020ko Gardentasun Txostena

INDIZE

1.- ERAKUNDE INFORMAZIOA	1
1.1.- Izaera juridikoa	
1.2.- Eginkizunak	
1.3.- Organigrama eta gobernu-organoak	
1.4.- Taldea	
1.5.- Plan estrategikoak	
1.6.- Jarduera txostena	
1.7.- kalitate ziurtagiriak	
2.- EKONOMIA ETA FINANTZA INFORMAZIOA	5
2.1.- Txosten ekonomikoa	
2.2.- Auditoretza txostenak eta kontuak	
3.- HARREMANEI BURUZKO INFORMAZIOA ADMINISTRAZIO PUBLIKOekin	6
3.1.- Administrazio publikoak	
3.2.- Erakunde pribatuak	
4.- BIZITEGIK PARTE HARTZEN DUEN SAREAK ETA FOROAK	8
5.- ERAKUNDE PUBLIKO FINANTZAILEAK ETA LAGUNTZAILEAK	8

1.- ERAKUNDE INFORMAZIOA

1.1.- Izaera juridikoa

Bizitegi 1980an ekin zion bere jardunari, Bilboko Otxarkoaga auzoan, komunitate-lana oinarri zuela. Geroago, 1988an, irabazi-asmorik gabeko elkarte bihurtu zen, eta 1997an Balio Publikoko Entitatea zelako aitortpena jaso zuen.

1.2.- Eginkizunak

Bizitegi 42 urte daramatza Bizkaian **gizarte-bazterketako arriskuan edo egoeran dauden pertsonak gizarteratzen**, haien bizi-baldintzak hobetzeko esku-hartze prozesuen bidez eta sentsibilizazio- eta salaketa-ekintzen bidez. Xede hori gauzatzean, pertsona funtsezko balioztat hartzen dugu, eta komunitatea, berriz, garatzen den lekutzat.

Gure zerbitzuen bezero eta hartzaile nagusia Bizkaian gizarte-bazterketako egoeran dagoen eta 18 eta 65 urte bitarteko adina duen erabiltzailea da. Erabiltzaileak etxerik gabeko pertsonak dira, Bilboko **kaleetan etengabe bizi direnak; adikzioak eta/edo gaixotasun mentala duten pertsonak. Arreta integrala** jaso dezaten lan egiten dugu, egungo bizi-baldintzak hobetzeko eta hobekuntza hori sakontzea eta sendotzea ahalbidetuko duten gizarteratze-prozesuetan aurrera egiteko. Gure laguntza-ereduaren helburua gizarteratze-prozesuak erraztea da, pertsonak ahalik eta autonomia-mailarik handiena eta bizi-kalitate onena lor dezaten. Bizitegi laguntza-sare bat du Bilbon, honako hauek osatuak:

- Eguneko zentroak: 136 plaza.
- Bizilekua: 92 plaza
- Ireki: Bizimodu independenteari eusteko laguntza (12 plaza)
- Borobiltzen. Emakumeen bizikidetzeta eta topaketarako gunea.
- Aurkigune. Aktibazio sozio komunitarioa
- *Aterpea: 83 plaza
- *Komunitatean eta gizartean esku-hartzea (Elejabarri).
- *Genero indarkeria eta gizarte bazterketa sufrizten duten emakumeak artatzeko "zaindu" proiektua
- Lur: Lehen Urratsa programa. Etxerik gabeko pertsonentzako gizarteratze-ibilbideak Covid-19ren arabera.

*Udal zerbitzuak

Bizitegi Laguntza-sarea



*Udal zerbitzuak.
E: emakumeak; G: gizonak

1.3.- Organigrama eta gobernu-organok

- **Bazkideen Batzar Nagusia:** Elkarteko organo gorena. 28 pertsonak (13 emakume eta 15 gizon) osatzen dute.
- **Zuzendaritza Batzordea:** elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzen dituen ordezkaritza-organoa, Batzar Nagusiaren xedapen eta zuzentarauen arabera. 5 pertsonak osatzen dute.
 - Alfonso Dubois Migoya (Presidentea)
 - Mari Jose Albizua Manrique (Presidenteordea)
 - Ricardo Oficialdegui Iriarte (Diruzaina)
 - Julen Ahedo Diaz (Idazkaria)
 - Angel Toña Guenaga (Batzorkidea)
- **Zuzendaritza-taldea:** Zuzendaritza Batzordeak izendatuko du, erakundearen esparruetan ordezkaritza handiena dagoela kontuan hartuta. Kudeatzaileak, zuzendari teknikoak, pertsonak kudeatzeko arduradunak eta esku hartzeko unitateetako arduradunak osatzen dute. Guztira, 8 pertsona.

- **Arduradunen taldea:** zuzendaritza-taldeak, kudeaketa aurreratuak, baliabideen kudeaketak eta esku hartzeko unitateei atxikitako arduradunek (prozesu operatiboen arduradunak) osatzen dute. Guztira 15 pertsona.


1.4.- Taldea

Bizitegi lanbide-taldea 87 pertsonak osatzen dute (61 emakume eta 27 gizon). Horien batez besteko adina 43 urtekoa da, eta elkartean batez beste 11 urteko antzintasuna dute. Pertsonen % 90k kontratu mugagabea dute. Esku hartzeko taldeak diziplina anitzekoak dira, eta ikuspegi desberdinak eskaintzen dituzte hezkuntzaren, psikologiaren, fisikoaren, gizartearen, prestakuntzaren, lanaren eta zuzenbidearen ikuspegitik.

Bazkideen Batzarra 28 pertsonak osatzen dute (13 emakume eta 15 gizon). Gainera, Bizitegirekin 50 boluntariok lan egiten dute (32 emakume eta 18 gizon). Pertsona horiek ezinbestekoak dira erakundeak ezarritako helburuak garatzeko eta lortzeko, eta elkartasunez jokatu nahi duen gizarte baten konpromisoa adierazten dute.

Bizitegi Esku-hartze Unitateek eta Prozesuek antolatzen dute. Esku-hartze Unitateak diziplina anitzeko taldeak dira, eta antzeko ezaugarriak dituzten hainbat zerbitzuri ematen diete arreta elkarrekin: eguneko zentroak, egoitza-hezkuntza-zentroak eta etxerik gabeko pertsonak. Esku-hartze Unitateen zeharkako prozesuek funtzionamenduaren funtsezko alderdiak arautzen dituzte, esku-hartzeari eta kudeaketari koherentzia eta osotasuna emanez.

1.5.- BIDE 22: Plan estrategikoa. Ardatzak, helburuak eta jarduera-ildoak



1. ARDATZA.- **Komunitatearen parte-hartzea**, lantzen ditugun gizarteratze-aukeren eta gizarte-eraldaketaren ardatz egituratzaile gisa.

2. ARDATZA.- **Genero-berdintasuna** gehitzea, gure jarduera-esparru guztiak zeharkatzen dituen desparekotasun-arrakalari aurre egiteko zehar-lerro gisa.

HE1.- Arreta integral baten aldeko apustua egitea, kontuan hartuta guk artatutako pertsonen duintasuna

IE 1.1.- Gizarteratzeko bide berriak irekitzea, pertsona bakoitzaren balioetan eta hautuetan oinarritutako helburuetan finkatuta.

IE 1.2.- Kultura eta tresnak sortzea pertsonen parte-hartzea areagotzeko, bai erakundean eta bai komunitatean eta gizartean.

IE 1.3.- Zerbitzu bakoitzaren egitura, antolamendua eta prestazioak eredura egokitzea.

IE 1.4.- Proiektu berritzaileak finkatzea: Aurkigune, Borobiltzen, Tutoretzapeko etxebizitzak

HE2.- Gure lanaren eragin soziala areagotzea, hurbileko gizartea giza garapen eta gizarte-garapen handiago baterantz eraldatuz joateko.

IE 2.1.- Herritar eraldatzaileak sustatzea, eta sentsibilizazio-guneak eta bizitza-esperientziak irekitzea.

IE 2.2.- Salaketa-lanean sakontzea: horretarako, diskurtsoa sortzea, edukiak zabaltzea eta gizartearen parte-hartzea sustatzea.

IE 2.3.- Auzoetan lan egitea auzoetako kohesioa sustatzeko, gure harremanak eta parte hartzeko espazioak areagotuz.

IE 2.4.- Sareetan dugun presentzia bultzatzea gizarte zibila indartzeko, eta hala, guztion ongirako izango diren espazioak sortzen laguntzeko.

IE 2.5.- Ingurumena kontserbatzearen eta zaintzearen aldeko ohitura eta jarrera onak bultzatuko dituen kultura bat garatzea.

HE3.- Proiektu konprometitu gisa garatzea geure burua, proiektuaosatzen duten pertsonen ekarpenetatik, bakoitzak bere arloan.

IE 3.1.- Kode eta konpromiso etiko bat definitzea, profesionalen ekarpena BIZITEGIren balioekin eta nortasunarekin lotuta.

IE 3.2.- Pertsonen garapena eta balioespena, lan-ingurune osasuntsuak sortuz.

IE 3.3.- Proiektuaren euskarri diren gizarte-oinarria eta antolakuntza-egiturak indartzea.

IE 3.4.- Euskararen presentzia eta erabilera sustatzea, lanerako eta zerbitzua emateko hizkuntza gisa.

HE4.- Baliabide finantzario, material eta antolakuntzakoak modu jasangarri eta arduratsuan kudeatzea.

IE 4.1.- Ekonomia-jasangarritasuna bermatzea, gure zerbitzuek eta hobekuntza-proiektu berriek funtzionamendu egonkorra izan dezaten.

IE 4.2.- Azpiegitura materialak, teknologikoak eta zerbitzu orokorretakoak berritzea.

IE 4.3.- Kudeaketa aurreratua eta berritzailea egitea, etengabe hobetuz, ikertuz, esperientziak alderatuz eta sormena landuz.

1.6.-Jarduera txostena

Jarduera txostenak gure webgunean daude jasota:

<https://www.bizitegi.org/eu/argitalpenak/memorias/>


1.7.- Kalitate ziurtagiriak

Bizitegik Erakundeak **Kudeaketa Aurreratuari Zilarrezko Aintzatespena** lortu du Euskaliteko Ebaluazio Klubak egindako kanpo ebaluazioan. Hortaz, Eusko Jaurlaritzak aintzat hartzen du aipaturiko helburua lortzeko egin den ahalegina. Hori garbi islatzen da azken urteotan kudeaketa hobetzeko eta berritzeko egindako ekintzetan, horien bidez hobetu egin baita erabiltzaileen, profesionalen, boluntarioen, gizartearen eta gainerako talde interesdunen asebetetze-maila.


2.- EKONOMIA ETA FINANTZA INFORMAZIOA

2.1.- Txosten ekonomikoa

SARRERAK



GASTUAK



2.2.- Auditoretza-txostenak eta kontuak:

Kontuen enpresa ikuskatzaileak, Euskoaudit SAPk, egindako txostenean jasotzen denez, urteko kontu horiek zintzotasunez erakusten dituzte Bizitegiren ondarea eta finantza-egoera.

Gure web orrian auditoretzen txostenak ditugu jasota:

<https://www.bizitegi.org/eu/las-cuentas-claras/>

3.- HARREMANEI BURUZKO INFORMAZIOA ADMINISTRAZIO PUBLIKOekin

3.1.- Erakunde publikoak

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailak (hitzarmenetako diru-sarreraren % 40) eta Bilboko Udalak (Gizarte Ekintza Saila) finantzatzen dituzte nagusiki Bizitegiko zerbitzuak, lizitazio-formatuan, % 16an. Aurten, diru-laguntzak diru-sarreraren % 36 izan dira (diru-laguntza horien % 96 Coviden egoerarako berariazko laguntzak izan dira).

Lehen aipatu dugun bezala, gure laguntza-sarea 7 eguneko zentrok 136 plaza; Bizilekua: 92 plaza; Ireki: Bizimodu independenteari eusteko laguntza (12 plaza); Borobiltzen. Emakumeen bizikidetzeta eta topaketarako gunea; Aurkigune: Aktibaizio soziokomunitarioa; *Aterpea: 83 plaza; *Komunitatean eta gizartean esku-hartzea (Elejabarri). *Udal zerbitzuak

3.2.- Entidades privadas

Además de la financiación pública también colaboramos con entidades de carácter privado, de las cuales hemos recibido las siguientes cantidades:

HITZARMENAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOekin			
ADMINISTRAZIO PUBLIKO SINATZAILEA	XEDEA	ZENBATEKOA	IRAUPENA
BIZKAIAKO FORU ALDUNDIA (GIZARTE EKINTZA SAILA)	Bizitegi sarea	1.797.981	01/01/2021etik 31/12/2021ra
	Uribarriko eguneko zentroa	199.474	
	Errekaldeko eguneko zentroa	246.015	
	Peñaskal etxebizitzak	111.565	
	Mina Morro etxebizitzak	109.118	
	Ireki	71.830	

KONTRATUAK			
ADMINISTRAZIO PUBLIKO SINATZAILEA	XEDEA	ZENBATEKOA	IRAUPENA
BILBOKO UDALA	AME	562.143	01/01/2021etik 31/12/2021ra
	PISECO	386.518	
	Etxebizitza partekatuak	65.817	

DIRU LAGUNTZAK			
ADMINISTRAZIO PUBLIKO SINATZAILEA	XEDEA	ZENBATEKOA	IRAUPENA
BILBOKO UDALA	Onartu zentroa	30.900	01/01/2021etik 31/12/2021ra
	Ohitura osasungarrien jardunaldia: Osasunday	1.400	
	Zaindu	20.000	
	Lehen Urratsa proiektua	1.035.000	01/01/2021etik 31/12/2021ra
EUSKO JAURLARITZA	Lehen Urratsa proiektua	948.676	01/01/2021etik 31/12/2021ra
	Boluntarioritza aktiboa	5.930	
EUSKO JAURLARITZA. BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA	Onartu zentroa	20.583	01/01/2021etik 31/12/2021ra
	Etxebizitzak etxerik gabekoentzak	18.133	
EUSKO JAURLARITZA. OSASUN SAILA	Onartu zentroa	20.583	01/01/2021etik 31/12/2021ra
	Peñaskal eta Mina del Morro etxebizitzak	24.323	
	Errekalde eta Uribarriko eguneko zentroak	13.351	
EUSKO JAURLARITZA	Aurkigune	3.362	
EUSKO JAURLARITZA EMAKUNDE	Emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio-eta prebentzio-jarduerak	6.240	01/01/2021etik 31/12/2021ra
BIZKAIAKO FORU ALDUNDIA	Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektuak	7.041	01/01/2021etik 31/12/2021ra

3.2.- Erakunde pribatuak

Finantzaketa publikoaz gain, erakunde pribatuekin ere lan egiten dugu, eta kopuru hauek jaso ditugu:

DIRU LAGUNTZAK ETA HITZARMENAK ERAKUNDE PRIBATUEKIN			
ERAKUNDE PRIBATU EMAILEA	XEDEA	ZENBATEKOA	IRAUPENA
SERCADE	Etxebizitzak etxerik gabekoentzak	20.000	01/01/2021etik 31/12/2021ra
BBK Gizarte ekintza		12.750	
Victor Tapia Fundazioa		15.400	
Susana Monsma Fundazioa	Borobiltzen	7.000	
Gondra Barandiaran Fundazioa	Onartu zentroa	10.000	
Athletic Fundazioa	Etxerik gabeko Futbol Taldea	2.500	01/01/2021etik 31/12/2021ra

4.- BIZITEGIK PARTE HARTZEN DUEN SAREAK ETA FOROAK

ITUNAK	BIDESARI	FUNDACION EGUZKILORE	Osakidetza OSASUN MENTALERAKO SAREAK RED DE SERVICIOS MENTALES BIZKAIA	Bilbao Viviendas Etxebizitzak	FUNDAZIOA		
SAREAK	EAN PN	beste Bi	Gizarrdatz	HARRESIAK APURTUZ	NORTE	FEANTSA	HOSPES
FOROAK	KUDEAKETA ALIBERRATUA EUSKALIT GESTION AVANZADA	bolunta	MA	FORO INDICADORES TERCER SECTOR SOCIAL HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ADIERAZLEEN FOROA			
	denBBora Denbora erabiltzeko modu berriak Nuevos usos del tiempo		kuna bbk e				

5.- ERAKUNDE PUBLIKO FINANTZAILEAK ETA LAGUNTZAILEAK

ERAKUNDE PUBLIKO FINANTZATZAILEAK

Bizkaia foru aldundia diputación foral	EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO	Bilbao
--	-------------------------------------	--------

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

FUNDAZIOA	BBG7 BAHIA DE BIZKAIA	FUNDACIÓN GONDRA BARANDIARÁN	FUNDACIÓN Susana Monsma
FUNDACIÓN VÍCTOR TAPIA - DOLORES SAINZ	SERCADE SERVICIO CAUCHINO PARA EL DESARROLLO	bbk e	Obra Social "la Caixa"